

# V. OINARRIZKO ERAKUNDEAK

## 1. KOROA

### 1.1. SARRERA

Konstituzioan polemikoa da. II. Titulua, estatuaren gainontzeko botereen aurretik dago. Gainera, erreformatzeko: prozedura indartua.

EK 56.1: estatu buruzagitza (Jefe de Estado) erregeari ematen zaio.

*1. Erregea Estatuko burua da, haren batasun eta iraupenaren sinboloa, erakundeetako funtzionamendu erregularra arbitratu eta moderatzen du, nazioarteetako harremanetan Estatu espainoleko ordezkaritza jasotzen du, batez ere bere komunitate historikoko nazioetan, eta konstituzio eta legeek espreski ematen dizkioten funtzioak ihardutzen ditu.*

Berez, estatu demokratiko batean, ezin du botere efektibo bat izan. Soilik beste organo juridiko edo politikoek ematen dituzten erabakiak formalizatzen mugatzen da. Ez du beraz botere errealik.

Monarkiaren erregulazioa 1.3 artikuluan hasten da. Hori bai, aurrez ezarri egiten da zuzenbide estatu demokratikoa eta herri subiranotasuna.

*3. Erregearen pertsona ukiezinezkoa da eta ez du inolako erantzunkizunik. Haren ekintzak 64. Artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65.2 artikuluan erabakitzen dena izan ezik.*

### 1.2 MONARKIAREN BILAKAERA

1. artikulua:

*1. Espainia Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko batean eraikitzen da, eta beraren balore nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta politik aniztasuna.*

*2. Subiranotasun nazionala Espainiako herrian datza, eta honengandik darizkio Estatuaren botereak.*

### *3. Estatu Espainolaren politika era Monarkia parlamentarioa da.*

Monarkia instituzio historiko bat da, eta Konstituzioan arautua dago ohitura luze baten ondorioz, eta baita aurreko erregimenak ezartzen zituen oinordekotza aurreikuspenak bete nahi izan zirelako.

- Trantsizioa aldaketa politiko "paktatu" baten ondorio izan zela, eta bere egungo errekonozimendua, orduko hitzarmenean ditu erroak.
- Normalean, errelatu ofiziala gorazarre egiten dio zuzenbide estatu demokratikoaren kontsolidazioan, asko lagundu zuela esanez. Eztabaidagarria guztiz.

Historikoki, printzipio demokratikoan eta printzipio monarkikoan oinarriturik egon diren gobernu formak aurrez aurre egon dira. Historiak hori erakusten du.

Monarkia parlamentariorekin, monarkia demokraziarekin bateragarria egiten saiatu zen. Nola? Parlamentarismoa egokituz eta monarkiaren boterea asko mugatuz, praktikan botere sinboliko bezala utzi arte.

#### **1.2.1. Estatuan**

Estatuaren buruzagitzaren oinordekotza legea (1946): Franco hiltzean monarkia berrezarria geratuko zen.

Estatuaren Lege Organikoak (1967) eta 1969ko uztailaren 22ko legeak osagarritu zuten, Juan Carlosi tronua ematen ziotenak. Are gehiago, Franco gaixorik zela, erregeak estatu buruzagitza asumitu zuen behin behinean.

Koronazioa, behin Franco hiltza, gorte frankistetan eman zen. Hau da, printzipioz oinordekotza legeek aurreikusten zutena bete zen.

1975-1978 urteak oso oso garrantzitsuak dira monarkien instituzioa ulertu ahal izateko. Monarkia konstituzioan jasotzen da, estatuko gainontzeko aparatu eta botereak bezala, eta behin herriak berretsita, zilegitua geratzen da, gainontzekoak bezala.

- Juan de Borbonen (Juan Carlos erregearen aitaren) abdikazioak erregearen zilegitasun dinastikoa handitu zuen (1977ko maiatzean).

- Beraz, konstituzioaz geroztik, printzipioz eta batzuen ustez, Koroaren zilegitasuna ez dator bere garrantzi historikotik, ezta aurreko erregimeneko oinordekotza aurreikuspenetik, baizik eta konstituzioaren erreferendum bidezko onarpenetik.

### **1.3. MONARKIA PARLAMENTARIOAREN ERREGULAZIO 1978KO KONSTITUZIOAN**

#### **1. Monarkia trantsizioan eta 1978ko konstituzioan**

Konstituzioan monarkia jasotzea nola justifikatu zen? Indarrean zegoen legediaren arabera, Monarkiak jarraitu behar zuen.

Haustura demokratiko bat egon izan balitz, monarkia frankismoarekin zituen lotura historikoengatik, instituzio demokratikoen artetik desagerraraztea litzateke zentzuzkoena. Bere legitimazio demokratiko oso zaila zen garai hartan.

**Pérez Royoren** ustez, adibidez, anomalia historiko bat da, arrazionalki justifikatzerik ez dagoena.

- Printzipioz ez da estatu botere bat, arbitro bat baizik. Baina estatu botere bat ez bada, are zailagoa bere beharra justifikatzea, beste organo moderatzaile: auzitegi konstituzionala.
- Egungo sistemaren muina ordezkagarritasuna da, eta monarkia ez da instituzio ordezkatzailea. Zaila da, oso, bere justifikazio arrazionala.

Edozein kasu gogoratu behar: monarka Konstituzioaren mendepo da, eta soilik konstituzioak ematen dizkion botereak ditu. (Baieztapen zalantzarria).

Konstituzioaren bigarren titulua: "Koroa". Instituzioaren garrantzia nabarmendu nahi da, monarkian/ erregean duen pertsonifikazio tenporaletik ezberdinduz.

#### **2. Koroa konfiguratzeko duten elementuak**

##### **1. Erregea**

56. art: estatu buruzagitza ematen dio. Erregeak koroa pertsonifikatzen du eta Estatuaren batasun eta iraunkortasunaren ikurra da.

1. Erregea Estatuko burua da, haren batasun eta iraupenaren sinboloa, erakundeetako funtzionamendu erregularra arbitratu eta moderatzen du, nazioarteetako harremanetan Estatu espainoleko ordezkariak jasotzen du, batez ere bere komunitate historikoko nazioetan, eta konstituzio eta legeak espreski ematen dizkioten funtzioak iharduntzen ditu.

2. Haren titulua Espainiako Erregean datza eta erabil ditzake Koroari dagozkion besteak ere.

3. Erregearen pertsona ukiezinekoa da eta ez du inolako erantzunkizunik. Haren ekintzak 64. artikuluan ezarritako eran berretsiturik daude beti, aipaturiko berretsipenik gabe baliapenik ez dute, 65. 2. artikuluan erabakitzen dena izan ezik.

Konstituzioaren menpekoa da. Konstituzioa zin egin behar du (62.1.art).

## **2. Oinordekotza**

57.1. art:

1. Espainiako Koroaren oinordekoak izango dira Borbongo don Juan Carlos I maiestate horren ondorengoak, hura baita dinastia historikoaren jaraunsle legitimoa. Tronu-oinordetzak premutasun eta ordezkariaren inguruko hurrenkera erregularra beteko du, eta aurreko lerroak lehentasuna izango du beti gerokoei begira; lerro berean, hurbilekoak lehentasuna izango du urrunekoari begira; gradu berean, gizonetakoak emakumezkoari begira; eta, sexu berean, zaharrenak gazteenari begira.

Hereditarioa da. 57.1. artikuluan irizpideak agertzen dira:

- Primogenitura: aurrekoak ondorengoan aurretik.
  - Horretarako adina eta sexua dira garrantzizko. Bi irizpideak nahastuz, Felipe da oinordeko, bere bi arreben aurretik.
  - Talka dago 14 artikuluekin.

33/2006 Legea, urriaren 30ekoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko noblezia tituluen oinordekotza.

### **3. Erregentzia edo erregeordetza**

59. art: Bi egoeretan: oinordekoa adingabekoa debean edota erregea inhabilitatu dutenean.

- Adingabekoen kasuan, aita edo ama erregeorde izango dira (59.1) edo bestela, oinordekotza lerroan hurrengo adinez nagusia.
- Erregeordea printzea litzateke adinez nagusia balitz, bestela, 57. Artikulua jarraituz.

### **4. Errege etxea**

65 art: Aurrekontu orokorretan partida bat egongo da.

*1. Erregeak Estatuko Aitzin kontutik kantitate orokor bat jasotzen du bere Familia eta Etxea sostengatzeko eta hura libreki banatuko da.*

*2. Erregeak libreki izendatu eta txandakatzen ditu bere Etxeko Kide zibil eta militarrik.*

## **1.4. ERREGIAREN EKINTZEN IZAERA BERRESPENAREN BEHARRA**

### **1. Erregiaren funtzioen izaera juridikoa**

Ez da soilik sinbolikoa. Bere funtzioek eragin juridiko-konstituzionala dute. Eragin juridikoa du bere jardunak.

### **2. Berrespena**

56.3 artikulua araberan erregea bortxaezina (ukiezina) eta erantzukizunik gabekoa da.

Horrekin batera, erregiaren ekintzen berrespenaren beharra ezartzen da. Bere bitartez, beste instantzia batek erregeak egiten dituen ekintzen erantzukizuna bere gain hartzen du.

Erantzukizun hori Konstituzioaren 64 artikuluan dator:

*1. Erregiaren ekintzak Gobernu Lehendakariak berretsiak izango dira eta, honen ezean, dagokion Ministroak. Gobernuko Lehendakariaren proposatze eta izendatzea eta 99. Artikuluan aurreikusitako deuseztatzea Biltzar Lehendakariak berretsiak izango dira.*

2. *Erregearen ekintzen arduradunak berresten dutenak izango dira.*

- Batetik, gobernu presidenteak eta ministroek.
- Bestetik, Kongresuko presidenteak (99 artikuluan ezartzen diren funtzioetarako).

Ez dute berrespenik behar kontu pertsonalek eta errege etxearekin zerikusia dutenak.

## **1.5. KOROAREN FUNTZIOAK (ERREGEARENAK). EK 62**

### **1. Botere exekutiboari dagokionez**

62. d. art: Gobernu presidenterako hautagaia aurkezten du, baita izendatu eta eten arte.

*Gobernuko lehendakaritzarako hautagarria proposatu eta, behar denean, izendatu, eta baita haren funtzioei amaiera eman Konstituzioan aurre ikusitako arauen neurrian.*

Gainontzekoak formalak besterik ez dira:

- Ministroen izendapena, presidentearen proposamenari jarraiki.
- Ministro kontseiluaren dekretu bidalketa (expedición).
- Estatu aferen gaineko informazioa.
- Ministroen kontseiluko saioen presidentzia, presidenteak hala eskatuta.

Bere diskurtso politikoak (gabonak) arautu gabe daude. Ez daude berrespena behar duten ekintzen artean.

### **2. Botere legegileari dagokionez**

Legeak berronespena (sanción) eta aldarrikapena (promulgación). Derrigortua dago eta 15 egunetako epean egin behar du.

#### ***Berronespena***

Legesan sinatzea da, bere zigilua jarri. Monarkia parlamentarioetan erregea eta parlamentuaren arteko kosoberaniaren erreministentzia da. Sistema presidentzialistetan bi botereen bereizketa zorrotzaren isla da, zeinaren arabera presidenteak legea betatu dezake (beto devolutibo y beto suspensibo)

### ***Aldarrikapena***

Araua perfekzionatu dela eta obeditu behar dela adierazteko ekintza da. Modu honetan, onartutako legea autentifikatu egiten da eta ordenamendu juridikora inkorporatu egiten da. Berez, ekintza deklaratioa da, zeinaren arabera formalki adierazten den lege bat onartu dela eta herritarrek eta botereek bete behar dutela.

Gorteak deitu eta disolbatu. Erabaki politiko aurretiko bat formalizatu egiten du, 99 artikulua gobernu presidentearen eskuetan uzten duena.

Huteskundeak eta erreferendumak deitzea. Formalitate bat da.

### **3. Botere judizialari dagokionez**

117. art: Justizia herritik eratortzen da eta erregearen izenean administratzen dute epaile eta magistratuek.

Soilik forma historiko bat da. Erregeak ez du inolako eskumenik.

62.i. art:

*Grazi Eskubidea baliatu legearen arabera, indultu baimen orokorren baimenik ezin du eman.*

Graziako zuzenbidea, berez, ministroen kontseiluaren funtzioa.

### **4. Bestelako funtzioak**

65.2. art: Askatasunez egiten ahal dituenak. Hirugarren pertsoneri eragiten ez dietenak. Errege etxeak...

*Erregeak libreki izendatu eta txandatzen ditu bere Etxeko Kide zibil eta militarrik.*

## 2. PARLAMENTUA: GORTE NAGUSIEN ETA GOBERNUAREN ARTEKO HARREMANA

Botere banaketaren garapenetan planteamendu nagusi bi agertu izan dira:

- a) Estatu botere eta erakundeen artean banaketa argi eta sendo bat bilatzen duena (erakunde batez ez du besteen ekintza bultzatu edo oztopatzeko tresnatik). Ameriketako kolonietan agertu zen sistema hau. Sistema **presidentzial** esaten zaie eredu hau jarraitu dutenei.
- b) Bigarren planteamenduaren aburuz, botereen nahasmena saihesteko behar dena da botere eta erakundeen arteko lankidetzeta eta oreka bat. European agertu zen sistema hau (Ingalaterran). Sistema **parlamentario** esaten zaie eredu hau jarraitu dutenei.

Estatu Espainolak monarkia parlamentario (EK 1.3. art) bat izanik botere banaketaren garapenean bigarren planteamendua jarraitzen du.

Hau da, botereen nahasmena saihesteko –eta horrela Estatuaren botereen banaketa bermatzeko- botere eta erakundeen arteko lankidetzeta eta oreka bat behar da.

Emaitza: Gorte Nagusien eta Gobernuaren arteko harremana sortzen da (EK 108-116 art.)

### 2.1. Inbestidura

Gobernuak inbestiduraren bitartez jasotzen du Parlamentuaren Konfiantza.

Gobernuko Presidenteari (eta ez gobernu osoari beraz) ematen dio Diputatuen Kongresuak konfiantza. Printzipioz helburua da konfiantza hori legegintzaldi osoan mantentzea (4 urte) baina gertatu daiteke harreman hori kolokan jartzea:

- **Diputatuen Kongresuko kideen parte batek** zentsura mozioa (EK 113 art.) aurkeztu dezake, Gobernuko presidentea bere kargutik kendu eta beste presidente berri bati kargua ematea proposatuz.
- Bere aldetik, **Gobernuko Presidenteak** Konfiantza Arazoa (EK 112 art.) aurkeztu dezake (kongresuari galdetuk ea oraindik haren konfiantza duen) edo badezake ere Gorteak disolbatzea, hauteskunde berrietarako deialdia aurreratuz (EK 115 art.)



Konfidantza-arazoa (112 art.) irabazteko, bozketara aurkeztu diren diputatuen gehiengo soilaren aldeko botoa behar da.

*112. artikulua: Gobernu Lehendakariak, Ministro Kontseiluan aurrez ikusitako eztabaidaz Diputatuen biltzar aurrean ager dezake bere egituratuko konfidantza arazoa edo politika orokorraren adierazpen bat. Konfidantza emanda bezala ulertuko da Diputatuen gutxiengo soilak haren alde botua ematean.*

Beraz, konfiantza-arazoa eta zentsura-mozioa (113 art-) irabazteko eskatzen diren gehiengo desberdintasunak ergi erakusten duenez, Konstituzioak gobernuaren egonkortasuna segurtatu nahi du.

*113. artikulua:*

*1. Diputatuen Biltzarrak Gobernu erantzunkizun politikoa eska dezake sentsura mozioaren gehiengo absolutu aukeraren bidez.*

*2. Zentsura mozioa, gutxienez Diputatuen hamargarrenak proposatua, eta barnetu beharko du Gobernuko lehendakaritzarako hautagarri batek.*

*3. Zentsura mozioa ez da botatu beharko bere aurkezpena egin eta bost egun igaro arte. Epe honen barruko bi egunetan hautakizun proposamenduak aurkez daitezke.*

*4. Zentsura proposamendua Biltzarrak onartzen ez baldin badu haren sinatzaileek ezin dute aurkeztu besterik epe berdinetako bilkuretan.*

KONPARAKETA	Zentsura Mozioa	Konfiantza Arazoa
Nork eskatzen du Kongresuaren iritzia	Diputatu talde batek	Gobernuko presidenteak
Zer gertatzen da Kongresuak harremana bukatutzat ematen badu	ZM konstruktiboa denez presidentegai berriak hartzen du kargua (Erabateko gehiengo behar da)	Gehiengo soilak Presidenteari konfidantza kendu ezker, KONTSULTA FASEA hasten da

### 3. GORTE NAGUSIAK

#### 1.3. Artikulua:

*Estatu Espainolaren politika era Monarkia parlamentarioa da.*

#### 3.1. GORTE OROKORREN POSIZIO KONSTITUZIONALA

##### 1. Gorte Orokorrak gobernu sistema parlamentarioan

Ordezkaritza *instituzio nagusia* da

- Historikoki, Frantzia, subiranotasun nazionala soilik bere ordezkarien bidez existitu zitekeen, eta herritatik prestatuenek geratzen zuten (sufragio murriztua).
- Sufragio unibertsalarekin eta herri subiranotasunarekin ordezkartza instituzioak demokratizatu egin ziren.
- Gaur egun ordezkartzak funtsezko izaten jarraitzen du, baina ez da bide bakarra herritarrek duena arazo publikoetan parte ahortzeko.

**E.K ak parlamentu bikamerala du:** Diputatuen Kongresuak eta Senatuak. Bien batura Gorte Orokorrak/ Ganberak dira (EK 66 ART).

*66.1. Gorte orokorrak Espainiako herriaren adierazgarri dira eta haiek Diputatu eta Senatuaren biltzarrak osatzen ditu.*

**Funtzioak:** legegilea, aurrekontuak, gobernuari kontrola eta Konstituzioak ezartzen dituen besteak.

*66.2. Gorte Orokorrak Estatuko legegintza boterea dute, aitzin kontuak onartzen, Gobernu ekintza kontrolatzen eta badituzte Konstituzioak ematen dizkien beste eskubideak dira.*

Horiez gain, zerk ematen dio zentralitatea Parlamentuari espainiar gobernu sisteman? Inbestidurak, presidentearen hautaketak (EK 99 art: gobernuburuaren izendapena eta inbestidura botoa)

Bikameralismoa ez orekatua. Kongresu alde-senatuen aurka.

### ***Kongresuak soilik***

- Inbestidura.
- Lege proiektuak hasten dira.
- Erreferendum kontsultiboen baimentzea presidenteari, Kongresuen eskuetan geratzen da (EK 92 art).

### ***Senatuak***

Kongresuak egindakoa berretsi, emendakinak egin edo betoa jarri (baina kongresuak altxa dezakeena). Zentsura eta konfiantza mozioetan ez du parte-hartzen.

***Bikameralismo perfektua:*** Bakarra erreforma agrabatuan (EK 168): 3/5 gehiengoa exijituz.

Berez, ez gaude ganbera territorial baten aurrean.

## **2. Gorte Orokorren osaketa eta hautaketa**

Konstituzionalismoan gortek egitura bikamerala gehienetan, 1812koan eta 1931koan salbu.

Konstituzioaren arabera instituzio iraunkorrak dira eta agintaldi tenporala dute, "modu askean hautatuak baitira aldizkako hauteskundeetan" (EK 23.1), lau urtetarako.

*23.1. Hiritargoak arazo publikoetan zuzenki edo aldikako aukeramenetan bozketa orokorraren bidez libreki aukeratutako ordezkarien bitartez oarte hartzeko eskubidea du.*

Hautesle eta hautagai dira beren eskubide politiko osoak erabil ditzaketen espainiar herritarrak.

### ***Kongresua***

- EK dio 300 eta 400 kide artean izango dituela. LOREGek 350etan finkatu zituen.
- Probintziak dira barrutiak eta proportzionalki hautatuak dira, Ceuta eta Melillaren kasua izan ezik, diputatu bana hautatzen dutenak.
- Probintzia bakoitza 2 hautatzen ditu + populazioaren arabera (LOREG 162 art)
- Eserlekuak banatzeko: D'Ont sistema eta %3ko gutxiengoa.
- Barrutiak hain txikiak direnez sistema proportzionala beharrea maioritario bilakatzen da probintzia batzuetan.

## **Senatua**

- 266 senatari, bi modutan hautatzen direnak: barrutietan eta parlamentu autonomikoetan.
- Probintzia bakoitzak 4 senatari hautatzen ditu (3 markatu daitezke papeletan); Irla handiek 3na (Tenerife, Gran Kanaria era Mallorca; 2 markatuz) eta bana txikiek (batzuk batu behar). Eta berean Ceuta eta Melillak 2na senatari hautatzen dituzte.
- Parlamentu autonomikoek: senatari bat milioi biztanleko.
- Eserlekuak banatzeko: sistema maioritarioa zerrenda irekietan, gutxiengoaren ordezkariak bermatuz.

### **3. Autonomia parlamentarioa**

Zer da? Legebiltzarrak duen ahalmena bere burua arautu eta kudeatzeko (helburuak betetzen).

EK 72 art:

- Beren funtzionamendu erregulamenduak onartzen dituzte.
- Beren presidentek eta mahaiak hautatu.
- Beren aurrekontuak.

Historikoki perrogatiba bat izan da, exekutiboaren aurrean eta baita botere judizialaren aurrean ere.

Funtsezkoa da autonomiak bermatzea talde guztien parte-hartze plurala, eta baita bere izaera deliberantea ere.

### **3.2 PARLAMENTUAREN ERREGELAMENDUA**

*72.1. art. Diputatu eta Senatoreek beraien funtzio ihardunketetan agertutako iritziengandik ukiezintasuna gozatuko dute.*

- Gehiengo absolutuz onartu behar dira.
- Helburua: ganbera bakoitzaren auto-antolakuntza-
- Lege proposamen bezala tramitatzen da, beraz, gobernuak ez du parte hartzerik. Ondoren, ohiko prozedura legegilea jarraitzen da.
- Auzitegi konstituzionalaren arabera: lege mailako araua da. Erreglamendu bereziak dira. Konstituzionaltasun kontrola egiteko balio dute.
- Bere interprete gorena Ganberako Presidentea da.

### ***Edukia***

- Antolakuntza eta funtzionatzeko modua.
- Bere kideen estatutua.
- Prozedura legegilea.
- Tratatuaren baimentzea.
- Aurrekontuen opespena.
- Konstituzio erreforma.
- Kontrol prozedurak.

## **3.3 SUBJEKTU PARLAMENTARIOAK: LEGEBILTZARKIDEAK ETA LEGEBILTZAR TALDEAK**

### **1. Legebiltzarkideak eta beraien estatutu juridikoa**

#### ***Estatutu juridikoa***

Parlamentarien eskubideen, pribilegio/ eskumenen (perrogativa) eta betebeharrak biltzen dituen araudi legal konstituzionala.

#### ***Hautapen baldintzak eta bateraezintasunak***

- Hautagai-debekurik ez duten herritar espainolak, adinez nagusi direnak (LOREG 6 art).
- Nortzuk ez daitezke izan? Errege familiako kideak, AKko epaileak, Arartekoa, epaile eta fiskalak, militarra eta poliziak, hauteskunde batzordeko kideak... edota sententzia judicial irmo batean zigor hori dutenak (inelegibles). Baita ere atzerri-estatu batean kargu bat dutenak, Erkidego autonomoetako gobernuetako kideak... (154 LOREG)
- Inkonpatibilitatea: Kargu bat ala besteren artean hautatu beharko da. Ez badu hautaketa egiten, eserlekuari uko egiten diola aurreikusten da. Ezin da parlamentari autonomiko eta diputatu izan; eta une berean kongresuko eta senatuko kide izan.

#### ***Parlamentari karguen hartzea, suspentsioa eta galera***

- Hartzeko: Hauteskunde administrazioak ematen dio kredentziala; bere aktibitate eta ondasunen aurkezpena; Konstituzioaren zin egitea.
- Galera: hautaketa bertan behera uzten duen epai irmoa. Kargu publikorako inhabilitazio zigorra. Heriotza; inkapazitazioa (epai judicial bidez); agintaldia bukatu delako, edota uko egin zaiolako.

- Suspentsioa: adibidez, behin behineko espetxealdi kasuan edota inhabilitazio zigorra bere agintaldia baino laburragoa bada. Non ikusiko dugu hau?

### ***Parlamentarien eskubide eta betebeharrak***

- Eskubideak: soldata, pleno eta batzordeetara joatea, informazioa izan eta eskatzea.
- Betebeharrak: pleno eta batzordeetara joatea; ordena, kortesia eta disziplina parlamentarioa gordetzea; harreman ekonomikoetan bere parlamentari izaeraren berri ez ematea.


### ***Pribilegioak edo prerrogatibak***

- Parlamentuaren independentzia eta askatasunaren berme dira.
- Bortxaezintasuna: ez dira bere funtzioen betetzean ematen dituzten iritzien arduradun juridikoak. Parlamentu barruan.
- Inmunitatea: soilik atxilotuak izan daitezke berehalako delitu baten aurrean. Eta gainera, inkulpatuak eta prozesatuak izateko ganberen baimena behar da. Soilik eremu panalean babesten du, Tribunalek suplikatorioa egin behar dute, eta 60 egunetan erantzunik ez badago, ukatua ulertuko da.
- Foru berezia (aformandua): diputatu eta senatarien aurkako prozesuetan Auzitegi Goreneko penaleko Sala izango da eskuduna.

## **2. Legebiltzar taldeak (talde parlamentarioak)**

### ***Definizioa***

Ganbera beten kideen talde-batasuna, beren alderdi politikoaren borondatea adierazten dutenak. Salbuespena: talde mistoa.



### **Osaketa**

- Kongresuan 15 kide behar dira. Edo..
  - 5 diputatu, estatuko bozen %5a adierazten dutenak. Edo...
  - 5 diputatu, beren barrutiko bozen %15a adierazten dutenak.
- Senatuan: 10 senatari.
- Ohikoa da parlamentariak maileguan uztea edota baita bozkak ere, portzentaietara heltzeko.
- Inora batu ez diren parlamentariak talde mistora pasatzen dira.

### **Amaiera (extinción)**

- Taldearen borondatez.
- Murriztu delako. Senatuan 6 gutxienez, kongresuan erdia baino gutxiago.
- Erabaki judizial bidez (batasuna).

### **Egitura**

Bozeramalea; presidentea (ordezkari gorena; idazkari orokorra (koordinatzailea); batzordeetako arduradunak...

### **Funtzioak**

- Izendapenak: batzordeetako kideak eta diputazio iraunkorrekoak.
- Ganberako zuzendaritza organoetan.
- Legegintzan:
  - Osoko emendakinak.
  - Ekimen legegilea: 15 diputatu edo talde bat.
- Gobernuarekiko kontrola.

## **3.4 GORTE ORKORREN FUNTZIONAMENDUA ETA ANTOLAKETA**

<b><u>Gobernu organoak</u></b>	<b><u>Funtzionamendu organoak</u></b>
A) Ganberako Presidentea	A) Bilkura Osoa (Pleno)
B) Ganberako Mahaia	B) Batzordeak
C) Bozeramaileen biltzarra	C) Diputazio Iraunkorra

## 1. Gorteetako Gobernu Organoak

### Gobernu organoak

- A) Ganberako Presidentea
- B) Ganberako Mahaia
- C) Bozeramaileen biltzarra

### ***Presentzia***

- Ganbera bakoitzeko autoritate gorena.
- Ganbera bakoitzak autonomoki hautatua:
  - Gehiengo absolutua lehen itzulian.
  - Bigarreanean aski sinpleakin (bi bozkatuenak pasatzen dira).
- Eskuduntzak:
  - Gainontzeko organoekin harremanak.
  - Ganberaren pribilegioen defentsa: autonomia...
  - Lan parlamentarioen zuzendaritza
    - Prestaketa (gai ordena...)
    - Eztabaidaren zuzendaritza.
  - Ganbera barruko disziplina finkatzen du.
  - Erregelamendu aplikatu eta interpretatzen du.
- Ez dago aurreikusia bere agintaldiaren ezeztatzea.

### ***Mahaia***

- Ganberaren organo errektorea kontsideratzen da.
- Bere ordezkartza kolegiatua da (indibiduala, presidentearen esku).
- Ganbera bakoitzak autonomoki hautatzen du:
  - Kongresu: lehendakari, lau vice eta lau bokal.
  - Senatuak: lehendakari, bi vice eta lau bokal.
- Hautatuak dira bozkatuenak, baina papeletan soilik izen bat sortzen da. Horrela, talde parlamentarioek ordezkartza dute. Normalean adostasun politikoak daude.

### ***Eskuduntzak***

- Kalifikazioa: ikustatzen dute ia ekimen baten baldintzak betetzen dituen eta zein prozedura jarraituko den finkatu. Galderak, interpelazioak, mozioak, proposamen legegileak... berak onartzen ditu tramitera.



- Lan parlamentarioen zuzendaritza: asuntoen programazioa eta banaketa bere esku geratzen da.
  - Egutegia finkatzen du, bozeramaileen batzorde entzunda.
- Ganbera bakoitzaren barne-gobernua eta administrazioa. Aurrekontuaren elaborazioa eta exekuzioa.
- Ahalmen disziplinarioak. Zigorrek hizpatzea edota osoko bilkurara proposatzea.

### ***Bozeramaleen batzordea***

- Dimentsio instituzionala eta politikoa nahasten ditu. Talde parlamentarioek ganberako funtzioen prestaketa eta koordinazio lanean duten parte-hartze organoa da.
- Lehendakariak eta talde parlamentarioen bozemaleek partehartzen dute. Bozka ponderatua da.
- Hiru funtzio:
  - Gobernu organoak talde parlamentarioekin harremanetan jarri.
  - Talde parlamentarioen arteko adostasunak erraztu.
  - Lehen aurre-topatze (encuentro preliminar) bat ematen da gobernuaren eta oposizioaren artean.
- Partehartzen du lan parlamentarioaren programazioan. Bere eskuduntzak kontsultiboak dira.
- Astean behin biltzen da.

## **2. Funtzionamendu eta debilerazio organoak**

<b>Funtzionamendu organoak</b>
A) Bilkura Osoa (Pleno)
B) Batzordeak
C) Diputazio Iraunkorra

### ***Osoko bilkura***

- Ganbera osatzen duten kide guztien bilkura da (ez konfunditu instituzio osoarekin). Eta funtzio parlamentario nagusien jabea.
- Presidenteak presiditzen du. Eta honek deitzen du.
- Ongi bilduta egoteko, gutxienez kideen erdiak +1 egon behar du, (quorum de presencia) KE 79.1.

### ***Batzordeak***

- Organo kolegiatu bat dira, parlamentari gutxi batzuek osatzen dutena, eta osoko bilkuran ondoren tratatuko diren gaiak prestatzen dituenak.
- Mahai propioa dute, lehendakari, 2 vice eta 2 idazkari.

- Batzorde motak
  - Iraunkor legegileak: Lege proiektu eta proposamenak aztertzen dituzte. Delegazio legislatiboa izaten ahal dute haien alde (ez lege organiko, k erref, nazioarteko tratatu, oinarri lege edota aurrekontu legean).
  - Iraunkor ez legegileak: Parlamentarien estatutua, bateraezintasunak, suplikatorioak, izendapenak...
  - Beste batzuk: Bi ganberen batzorde mistoa
- Ikasketa eta ikerketarako

### **3. Jarraikortasun organoak: Diputazio iraunkorrak**

- Gutxienez 21 kideakoa. Parlamentuaren iraunkortasuna bermatzeko daude. Ganberak funtzionatzen ez duten uneetan funtzionatzen du.
- Hiru kasutan
  - Legegintzaldia bukatu denean (4 urteak)
  - Ganberak disolbatuak izan direnean
  - Bi saio-aldien artean (entre dos periodos de sesiones), oporraldi parlamentarioa dagoenean.
- Proporzionalki hautatuak 21 kideak
- Funtzioak
  - Opor garaian: ganberaren botereak mantendu eta ez ohiko bilkurak deitu.
- Disoluzioaren aurrean. Kongresuaren kasuan: lege-dekretuak konbalidatu eta salbuespen egoeretan interbenitu.

## 3.5 GORTE ORKORREN FUNTZIOAK

### 1. Funtzio legegilea

### Legegintzaldia eta sesio garaiak

□ Hauteskundeak eta gero, ganberak eratu eta hasten da  
*Legegintzaldi edo legislatura (4 urtetakoa)*

<ul style="list-style-type: none"><li>• Legegintzaldi Konstituziogilea 1977-1979</li><li>• I Legislatura 1979-1982</li><li>• II Legislatura, 1982-1986</li><li>• III Legislatura, 1986-1989</li></ul>		<ul style="list-style-type: none"><li>• IV Legislatura, 1993-1996</li><li>• V Legislatura, 1996-2000</li><li>• VI Legislatura, 2000-2004</li><li>• VIII Legislatura (2004-2008)</li></ul>
---	--	---

□ Legegintzaldiaren lanak urteroko *bi sesio garaietan* antolatzen dira (Otsaila-Ekaina, Iraila-Abendua)

#### **Ekimen fasea**

- Gobernuarena: lege proiektu
- Parlamentuarena: lege proposamen. 15 diputatu, talde parlamentari bat, 25 senatari.
- Autonomiek: parlamentu autonomikoek gobernuari lege proiektua eskatzen ahal diote, edo lege proposamena parlamentura bidali. Benetan, ekimen proposamena da. Lehenengo kasuan gobernu ez dago beharturik; bigarreanean osoko bilkurak aintzat hartu behar du.
- Herri ekimen legegilea: 500.000 sinadura. Prozedura azaldu

#### **Tramitazio fasea**

- Mahaiak lege testua jaso eta kalifikatu egiten du.
- Ondoren aintzat hartzea edo emendakin epearen irekitzea.
- Aurrera badoa => batzordera bidaltzen da. Batzordeak ponentzia bat antolatzen du informe bat egiten deza. Informe hori batzordean eztabaidatu eta Diktamen bat egiten da. Eta horrela osoko bilkurara bidaltzen da.
- Onartzen bada osoko bilkuran=> ondoren senatura.
- Senatuak hiru gauza:
  - Onartu aldaketarik gabe
  - Betoa. Kongresuak altxa dezake.
- Emendakinak. Kongresuak onartu ditzake ala ez.

### ***Konklusio/ amaiera fasea***

- Erregeak berronetsi eta aldarrikatu behar du, eta ondoren publikatu.
- Aldarrikapena: erregeak legeak betekizun konstituzionalak betetzen dituela konprobatzen da.

### **2. Aurrekontu funtzioa**

- Gobernuak aurrekontu orokorrak egiten ditu.
- Gorteeak aztertu, , emendakinak aurkeztu eta onartu egiten dituzte.
- KE 134 art. arautzen du.
- Beranduenez urriaren 1ean aurkeztu behar. Gobernuak atzeratzen bada Parlamentua ere atzeratuko da eta ez dira urte amaierarako onartuko.
- Prozedura legegile arrunta erabiltzen da.
- Gastu publikoaren igoera suposatzen duten emendakinek, sekzio berean beharpen berdina proposatu beharko dute, eta gobernuaren onespina beharko dute.
- Aurrekontu berririk ez badago epean, zaharrak luzatzen dira, berriak onartzen ez diren artean.
- Aurrekontu legeak ezin ditu zergak sortu.

### **3. Kontrola, fiskalizazioa eta erantzukizun politikoaren exigentzia**

- Hirugarren funtzio klasikoa kontrola da: kontrol politikoa.
- Bi mota daude
  - Ohikoa: gobernuaren eguneroko lana fiskalizatzen duena.
  - Erantzukizun politikoa exijitzen duena, alegia, gobernuaren erorketa bilatzen duena.
    - Zentsura mozioa (113 art.)
    - Konfiantza arazoa (112 art.)

KONPARAKETA	Zentsura Mozioa	Konfiantza Arazoa
Nork eskatzen du Kongresuaren iritzia	Diputatu talde batek	Gobernuko presidenteak
Zer gertatzen da Kongresuak harremana bukatutzat ematen badu	ZM <i>konstruktiboa</i> denez presidentegai berriak hartzen du kargua (Erabateko gehiengo behar da)	Gehiengo soilak Presidenteari konfiantza kendu ezker, KONSULTA FASEA hasten da

#### 4. Bestelako funtzioak

- AKko eta BJKN (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia) ko kideen izendapenak
- Arartekoaren hautaketa.
- Konstituzio kontrakotasun helegitea jartzea (50 diputatuk edo senatarik).

## 4. GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

### 4.1. GOBERNUA ETA GOBERNU SISTEMA PARLAMENTARIOA

- Konstituzioaren 99. Artikuluan arautzen da inbestidura.
- Inbestidurak eta gobernu osaketak hauteskundeetan agertutako borondate orokorra gobernu programa bilakatzen dute, zeinaren zuzendaritza presidentean pertsonalizatzen baiten.
- Gobernuak:
  - Hauteskundeak irabazi dituen gehiengo soziala orekatzen du.
  - Funtzio betearazlea betetzen (legeak aplikatu).
  - Ere herrialdearen zuzendaritza politikoa egiten du: aurrekontuak egin, lege egitasmoak...)
- Historikoki organo homogeen eta kolegiatuta izan da.

*EK 97: Gobernuak barne eta kanpoko politika gidatuko du, baita Administrazio zibil eta militarra eta Estatuaren defentsa ere. Aginte boterea eta arauzko ahalmena erabiliko ditu Konstituzio eta legeen arabera.*

- Barne politika arautu.
- Administrazio zibil eta militarra zuzendu.
- Estatua defendatu.

**Bere ekinbidea finkatzen duten printzipioak** dira:

- **Kolegialitatea:** akordioak kolektiboki deliberatu eta hartzen ditu.
- **Lehendakariaren preeminentzia:** gobernuaren bizitza eta ekinbide oro presidentearen bueltan ematen da.
- **Printzipio departamentala:** kolegiatua izatea eta lehendakariaren preeminentziari kalte egin gabe, ministroek beren departamenduaren eskuduntza propioa bereganatzen dute.
- **Legalitate printzipioa:** konstituzioaren eta legeen arabera funtzionatu behar du.

### 4.2. GOBERNUAREN OSAKETA

Gobernuaren izendapena (99) eta ministroena (100) ezberdindu behar dira.

#### **4.2.1. Presidentearen inbestidura**

99. art

*1. Diputatuen biltzarreko berriztatze bakoitzearen ondoren, eta beste balizko konstituzionaletan honela prozeditzetan, Erregeak, alde zurretikako kontsulta eginik errepresentapen parlamentarioz, izendutako talde politikoen errepresentapenarekin, eta Biltzarreko lehendakariaren bidez, Gobernuko lehendakaritzako hautagarri bat proposatuko du.*

*2. Aipatutako atalaren arabera proposaturiko hautagarriak Diputatuen biltzar aurrean azalduko du sortu nahi duen Gobernuaren egitarau politikoa.*

*3. Diputatuen Biltzarrak, bere kideen gehiengo absolutuaren botuaz kandidatu hari konfidantza emango balio, Erregeak lehendakari izendatuko luke. Gehiengo hura lortu ezik, proposamen berdina lehengotik berrogeita zortzi ordu igaroz gero berriz ere botoetara eramango da, eta konfidantza emanda bezala, ulertu da gehiengo soila lortzen bada.*

*4. Aipatu botazioak eginik inbestidurarako konfidantza ez baldin bada jasotzen, goiko atalean aurrez ikusitako elkar jarrai proposamenak tramitatuko direla.*

*5. Lehen botazio eta inbestiduratik bi hilabete igaro ondoren, Biltzar konfidantzarik inork ez baldin badu jaso, Erregeak Ganbara biak deuseztatuko ditu eta hauteskunde berriak bilerazi Biltzarreko lehendakariak berrespenaz.*

#### **Noiz aplikatzen da?**

1. Kongresua berri denean.
2. Heriotza.
3. Dimisioa edo uko boluntarioa.
4. Konfiantza kuestioa galduta, behartutako dimisioa ematen denean (114.art)

EK 114.

*1. Biltzarrak gobernuari konfidantza ukatzen badi, honek bere dimisioa Erregeari aurkeztuko dio, berehalaxe Gobernuko Lehendakaria izendatuz, 99. Artikuluan erabakitzen den arabera.*

*2. Biltzarrak zentsura proposamen bat onartzen baldin badu, Gobernuak bere dimisioa Erregeari aurkeztuko dio eta hau barnetzen den hautagarria Ganbararen konfidantza jaso bezala izango du 99.*

*Artikuluari aurrez ikusten den ondorioetarako, Erregeak Gobernu Lehendakari aurkeztuko du.*

### **Prozedura**

1. Erregearen kontsultak alderdiekin. Hautagaia aurkezten du erregeak.
2. Plenoaren aurrean hautagaiak programa politikoa aurkezten du, eta ganberaren konfiantza eskatu. Taldeek beren interbentzioak eta hautagaiak replikatzeko aukera.
3. Bozketa: gehiengo absolutua lehenean; erlatiboa bigarreanean.
4. Ez bada gehiengorik lortzen berriz ere zirkuito bera.
5. Lehen bozketarik 2 hilabete pasatakoan, erregeak gorteak disolbatu eta hauteskunde berriak deituko ditu.

### **4.2.2. Gobernuaren osaketa eta izendapena**

100. art:

*Beste Gobernu kideak Erregeak izendatu edo baztertuko ditu lehendakarien proposamenez.*

- Behin presidentea izendatu delarik, gainontzeko kideak erregeak izendatzen ditu, presidentearen proposamenaz (loteslea).
- Kongresuak ez du izendapen hauetan interbenitzen.
- Presidenteak erabateko askatasuna du.

98. art: osaketa

*1. Gobernua hauek osatzen dute: Lehendakariak, lehendakari ordeak, Ministro eta legeak ezartzen dituen beste kideak.*

*2. Lehendakariak Gobernu ekintza gidatzen du eta Gobernuko beste kideen eginbeharrak koordinatzen, baina hauek izango dira zuzenki gestioaren erantzuna emango dutenak.*

*3. Gobernu kideek ezin dute beste ordeko eginbeharririk bete agindu parlamentario propioetatik aparte, ez eta beste eginkizun publikorik ere beraien arduran sartzen ez dena, ez eta ekintza profesional edo merkataritza-ekintzik ere.*

*4. Legeak arautuko ditu Estatutua eta Gobernu kideen elkarezintasunak.*



## 4.3. GOBERNU KIDEAK

### 4.3.1. Organu Kolegiatuak

#### 1. *Ahalmenak*

- Onartu: lege proiektuak, aurrekontu proiektuak, lege-dekretuak, dekretu legegileak, nazioarteko tratatuen negoziaketa eta sinadura, erregelamenduak onartzea.
- Ekintza administratiboak: zor publikoaren emisioa, departamenduaren zuzendaritza organoen aldaketa, estatu idazkarien izendapena...
- Alarma, salbuespen eta setio egoerak aldarrikatu.  
Deliberazioak sekretuak dira.

#### 2. *Batzorde delegatuak*

- Ministroen kontseiluan sortu, aldatu eta ezabatuak dira, presidentearen proposamenaz.
- Arazo orokorrak tratatzen dituzte, zenbait ministeritzekin zerikusia dutenak. Ezagunena Asunto ekonomikoen batzorde delegatua.

#### 3. *Kolaborazio eta laguntza organoak*

- Estatu idazkari eta idazkariordeen batzorde orokorra: presidenteordeak edo presidentzia ministroak presiditzen du.
- Ministro kontseiluen saioak prestatzen dituzte. Kontseilua tratatuko diren gai guztiak aurrez hortik pasa behar.
- Gobernuaren idazkaritza: lanaren antolakuntza teknikoaz arduratzen dira. Deialdiak, aktak...
- Gabinetek: aholkularitza politiko eta teknikoa. Ez dira estatuko administrazioaren parte. Konfiantzazkoak dira.

### 4.3.2. Pertsona bakarreko erakundeak

#### 1. *Gobernu presidentea*

98.2: Gobernuaren ekimena zuzendu eta gobernukideen funtzioak.

*Lehendakariak Gobernu ekintza gidatzen du eta Gobernuko beste kideen eginbeharrak koordinatzen, baina hauek izango dira zuzenki gestioaren erantzuna emango dutenak.*

Ahalmenak:

- *Ekinbidearen zuzendaritza:* gobernua ordezkatu, programa politikoa ezarri, irizpideak eman, defentsa zuzendu...

- *Gobernukideen funtzioen koordinazioa*: bilerak deitu, koordinatu eta gai ordena finkatu. Ministerioak sortu, aldatu edo ezabatu. Irizpideak eman. Gatazkak konpondu.
- *Bere funtzio propioak, bereak direnak soilik*: erreferendum kontsultiboaren proposamena erregeari, erregearen ekintzen berrespena, konstituzio kontraktasun helegitea jarri...
- *Gobernabilitate krisi garaietan*: gorteen disoluzioa proposatzen du. Konfiantza arazoa planteatzen dio kongrsuari.

## **2. Presidenteordeak**

- Ez dira derrigorrezkoak.
- Bere funtzioak presidenteak finkatzen ditu.
- Praktikan koordinatzaile bat da.

## **3. Legeak ezarritako beste kideak. Estatu idazkariak**

- Estatu idazkariak ez dira berez gobernu kideak (legearena rabera).
- Kolaborazio organoak dira, oso kualifikatuak.

## **4. Ministroak**

- Gobernuaren beharrezko kideak dira.
- Kondizio bikoitza dute: gobernu kide eta bakoitzaren departamendu ministerialaren buru. Alegia, organo publiko eta administratiboa dira.
- Funtzioak:
  - Beren departamenduan gobernu ekintza aurrera eramatea.
  - Potestate erregelamentarioa erabiltzea.
  - Legeak dioneak.
  - Erregearen ekintzak berretsi, beren departamendukoak direnean.
- Karterarik gabeko ministroak egon daitezke, nahiz eta ez den oso ohikoa.

### **4.4. GOBERNU KIDEEN ESTATUTUA**

- Gobernu legearen II. Titulua. Konstituzioak dioena berresten du.
- Baldintzak gobernukide izateko: espainola, adinez nagusia, eskubideen jabe eta inhabilitaziorik gabe sententzia irmo batean (betikoak).

- Bateriaezintasunak: Bere kargua dedikazio eskusibokoa da. Ezin da bateratu beste ezoin aktibitate profesionalekin, izan publiko zein pribatu (GL 14).
- Estatu prozesala:
  - Ez inmunitaterik ez bortxaezintasunik, eta delitu guztien aurrean erantzun behar dute.
  - Forua: auzitegi gorenaren aurrean.
  - Tradizioagatik edo estatuaren segurtasunaren aurkako delituengatik epaituak izateko: kongresuaren ¼ ekimenez eta bere gehiengo absolutuaren onespenez.
  - Ezin ditu erregeak indultatu.

## **4.5. GOBERNUAREN FUNTZIOAK**

### **4.5.1. Zuzendaritza politikoa**

Gobernuaren funtzioa ez da soilik exekutiboa. Orokorrean estatuaren zuzendaritza politikoa aurrera darama: estatu organoek bete beharreko helburuen finkapenean datza. Bere funtzio nagusia da, tradizionalki.

Funtzio horretan, Konstituzioari eta ordenamendu juridiko osoari lotzen zaio.

### **4.5.2. Barne politikaren zuzendaritza funtzioa**

Gobernuak bere programaren helburuak planifikatu eta betearazten ditu estatu barruari begira.

#### ***Zertan datza?***

- Ahalmen normatiboan parte hartzen du: ekimen legegilea du, gorteekin batera legislatzen du, erreglamendu ahalmena betetzen du.
- Politika ekonomikoaren zuzendaritza: aurrekontuen elaborazioa, planifikazio ekonomikoko proiektuak...
- Organo konstituzional ezberdinekiko harremanak: gorteekiko, beren disoluzioa, hauteskunde deita eta abar; herriarekiko, erreferendum kontsultiboak; koroarekiko, berrespenak eta informazioa; auzitegi konstituzionalarekiko konstituzio kontrakotasun helegiteak, legeen suspentsioak...

Ohiz kanpo egoeretan:

- Alarma, salbuespen eta setio egoerak aldarrikatu.
- EK 155 art: erkidego autonomoak, interes orokorraren mesedetan.

#### **4.5.3. Kanpo politikaren zuzendaritza funtzioa**

Bi gauza aintzat hartu behar:

- Erregeak "estatuaren ordezkari goren" duen arren, soilik sinbolikoa da. Kanpo politika gobernuak zuzentzen du.
- Nazioarteko harremanak estatuaren eskuduntzak dira: 149.1.3

#### **4.5.4. Funtzio betearazlea eta reglamentarioa**

- **Reglamentarioa:** lege azpiko arau orokorrak emateko ahalmena.
- **Betearazlea:** ordenamenduaren aplikazioa.

#### **4.5.5. Administrazio zibil eta militarren zuzendaritza eta estatuaren defentsa**

##### **1. Administrazio zibila**

- Antolaketa.
- Goi karguen izendapena.
- Poliziaren zuzendaritza.
- Helegite administratiboaren erresoluzioa.
- Gobernu delegariaren izendapena, erkidegoetan estatu administrazioa zuzentzeko.

##### **2. Administrazio militarra eta estatuaren defentsa**

- Indar armatuen zuzendaritza, sinbolikoki mando supremoa erregearen arren.
- Gerra deklarazioak erregeak egiten ditu, Kongresuaren baimenaz. Hori bai, erregearen aldarrikapenak presidenteari berrespena behar du.

## **4.6. GOBERNUAREN AMAITZEA JARDUNEKO (cese) GOBERNUA**

### **EK 101. Art: arrazoiak finkatzen dira:**

*1. Gobernuaren hauteskunde orokorren ondoren deuseztatuko da, baita Konstituzioan aurrez ikusitako konfidantza parlamentarioa gaitze kasuetan edo bere lehendakariaren uztean edo hiltzean.*

*2. Deuseztaturiko Gobernuak, Gobernu berriak karguz jabetu arte eginbeharrak beteko ditu.*

- Hauteskunde orokorren ondotik.
- Konfidantza parlamentarioa galdu denean (zentsura alakonfidantza mozioa).
- Presidentearen disimisoa ala heriotza.

Erregeak dekretatzen du presidentearen berrespenaz (hilik badago presidenteordea).

Gobernuak funtziotan jarraituko du, *jarduneko gobernu bezala*.

### **Gobernu Legearen 21.3 art**

Jarduneko gobernuak gobernu berriaren osaketa prozesua erraztuko du, eta baina botere traspasoa ere:

- Bere kudeaketa ohiko asuntoei bide ematea izango da, eta ezin izango du beste erabakirik hartu.
- Soilik premiazkoak direla demostratu den gaietan, eta beti ere interes orokorraren mesedetan direla frogatzen bada, erabakiak hartzen ahalko ditu (baina salbuespena da).
- Gobernu honek ez du beraz zuzendaritza politikoaren funtzioa betetzen.
  - Ezingo di aurrekontu proiektua egin, delegazio legegilea garatu, erreferenduma antolatu, Gorteak disolbatu...
- Itxaron dezakeen edozein erabakik itxaron beharko du.
- Lege dekretuen kasuan, EK 21.3 ko betekizuenei 86. Art gehituko zaio.

## **4.7. ESTATU KONTSEILUA, GOBERNIAREN KONTSULTA-ORGANOA**

EK 107 art: Gobernuaren kontsulta-organo gorena da.

*Estatu kontseilua Gobernu gorengo organo kontsultiboa da. Lege organiko batek arautuko ditu haren osaketa eta konpetentziak.*

Lege organiko batek bere osaketa eta eskuduntzak arautuko ditu.

**Ezaugarriak:**

- Ez da kontsulta-organo bakarra.
- Estatu osoan ditu eskuduntzak, baina AAEE batzuk beren propioa osatu dute.
- Autonomia organiko, funtzional eta arauduna dauka.
- Legalitaterako eta interes orokorrerako berme bat da.

**Osaketa**

**Lehendakaria.** Gobernuak izendatua, izen handiko juristen artean.

**Kontseilariak:**

- Iraunkorrek: ezin dira kanporatu eta ez dute denbora mugarik. Hautatuak dira ministro, kontselari,...
- Jaiotzetikoak: gobernu presidente ohiak, akademiaren presidentea,...
- Elektiboak: 2 urtetarako

Bere irizpideak ez dira lotesleak, baina kasu askotan bai derigorrezkoak (konstituzio erreforma...)

## **4.8. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA**

**Definizioa:**

Antolakuntza multzo bat da, komunitatearen zerbitzura dagoena, eta zuzendaritza politikoko organoen zuzendaritzapean dagoena.

Organikiko Gobernuengandik ezberdintzen da.

**Funtzioa**

Gobernuak zuzentzen du (EK 97 art), beraz, gobernuak ekinbide politikoa zuzentzen du eta administrazioak betearazi.

Gobernuak ez du soilik zuzendaritza politiko funtzioa betetzen; era berean administrazioaren organo gorena da. Konkretuki, ministroak administrazioaren gailurrean kokatzen dira, bakoitza dagokion eremuan.

**Administrazio ezberdinak daude:**

- Estatuaren administrazio orokorra. Argaltzen joan da, EEAAen mesedetan.
- Administrazio autonomikoa. Potolotzen joan da.

- Tokiko administrazioa: udalerrak eta probintziak.
- Estatuari lotutako ente edo korporazioak: RTVE
- Administrazio europarra? European dagoen administrazio espainola litzateke....

### **Funtzionamendua:**

- Hautaturiko karguek zuzenduta eta funtzionarioz osatuta.
- Azken hauek berdintasunean lortu dute postua, meritua eta kapazitatea neurtzen dituen prozesu baten bidez hautatuak.
- Funtzionamendurako printzipio orokorrak:
  - Legalitatea: ez dago legearen menpekoa ez den administrazio atalik.
  - Objektibotasuna: helburu orokorren mesedetan objektibotasunez lan egiten du.
  - Eraginkortasuna: helburuak bete behar ditu eta kalitatezko zerbitzua eman.
  - Hierarkia: egitura piramidala. Gailurrean ministroa.
  - Deszentralizazioa: estatua eta erkidego autonomoak.
  - Deskonzentrazioa: funtzioen banaketa administrazio beraren barruan.
  - Koordinazioa: administrazioen artean eta barruan
  - Parte hartzea:
    - Herritarrak entzun.
    - Informazioarako sarrera.
  - Kontrola: juridikio kontenzioso-administratiboaren esku.
  - Indemnizazioak eska daitezke.

## 5. BOTERE JUDIZIALA

Dakigunez, konstituzioak estatua antolatzen ditu hiru botereak.

Botere judiziala (funtzioa jurisdikzionala) antolakuntza konstituzional konplexu baten bidez arautzen da, askotariko organo jurisdizionaletan alegia.

Askotariko organo horiek osatzen dute botere judiziala, bakarra eta unitarioa (baina deskonzentratua) dena eta gainontzeko botereetatik independente behar duena.

Konstituzioaren VI. Tituluan arautzen da (EK 117-127 art).

### 5.1. BOTERE JUDIZIALAREN MISIOA

Subjektu ezberdinen arteko gatazka batean aplikatuko den zuzenbidea zein den esan, erabaki eta adierazi.

Bere bidez Estatuak herritarren arteko gatazka edota hauek eta estatu botereen artekoak konponbidean jartzen diru, organo batzuei horiek baketzeko funtzioa emanaz, zuzenbidea aplikatuz.

Misio hori betetzeko epaitegiek autoritate posizioa dute, hirugarren inpartzial eta independente baten posizioa.

Prozedimendu baten bidez egiten dute lana (prozesu judiziala), zeinean aldeek beren burura defendatzen ahal duten.

### 5.2. BOTERE JUDIZIALAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZPTUAK

- **Justizia:** Ordenamenduaren balore gorena da (EK 1.1.)
- **Epaitegi eta auzitegiak:** lehenak unipertsonalak, bigarrenak kolegiatuak.
- **Epaile eta magistratu:** lehenak epaitegikoak; bigarrenak auzitegikoak/ tribunaletakoak.
- **BJKO (Botere Judizialaren Kontseilu orokorra/ Consejo General del Poder Judicial)** ez da botere judizialaren parte, ez baitu funtzio jurisdikzionalik betetzen.
- **AK (Konstituzio Auzitegia)** ere ez da botere jurizialaren parte.



### **Auzitegi Gorena (Tribunal Supremo):**

- Ez da instantzia organo bat, kasaziokoa (sententziak baliogabetzeko). Zuzenbidearen aplikazioa eta interpretazioa aztertzen du, baina ez gertakariak.
- 5 saila ditu: zibil, penak, kontentzioso, sozial eta militar.

## **5.3. BOTERE JUDIZIALAREN PRINTZIBIO KONSTITUZIONALAK**

### **1. Zilegitasun demokratikoa eta jurisdikzio eskusibotasuna**

#### ***Zilegitasun demokratikoa.***

1. Abiapuntua: EK 117.1. art.

“Justizia herritik sortzen da.” Aitzitik ez dute herri ordezkariak aplikatzen, funtzionarioek baizik.

2. Nondik dator bere zilegitasun demokratikoa?

Konstituzioarekiko eta legearekiko menpekotasun gogorretik. Soilik legea aplikatzen dute, ezin dute sortu. Demokratikoki zilegitzen da, arazoak herriak onartutako legeak aplikatuz konpontzen dituelako.

Erregearen izenean egiten da, estatuaren batasuna eta iraunkortasuna adierazten dituena.

Zilegitasun demokratikoa herritarren parte hartzea sustatuz lortzen da ere. Herri epimahaiak (EK 125)

Epailen funtzioa epaitzea eta epaitutakoa betearaztea da. Hori soilik eta eskusiboki eta gainera horretara behartua dago. Ezin du kasu bat epaitu gabe utzi.

3. Estatu sozialaren dimentsioa:

EK 119; dohako justizia

- Tasa judizialik eza (lehen).
- Babes juridiko dohako diru sarrerarik ez dagoenean.

## **2. Antolakuntza eta funtzionamendu printzipioak**

### ***Batasuna (EK 117.5)***

- Berez, ez dago tribunal berezirik: salbuespen epaitegiak, ohore epaitegiak...
- Gatazkak ohiko tribunaletan konpondu behar dira, estatuaren botere judizial unitarioan integraturik daudenean.
- Juridikzio militarra berezia da, baina helegiteak Auzitegi Gorenera bideratuz konpontzen da arazoa.

### ***Independentzia: Legearen inperioa (EK 117.1)***

- Justiziaren balio zentrala da.
- Zer esan nahi du? Ez dagoela lotura politikorik (irizpide politikoen jarraipenik) edota hierarkikorik (epaileek ez dituzte aginduak betetzen, ezta gaineko epaitegienak ere).

### ***Estatutu propioa dute (358-427 LOPJ)***

- Prerrogatibak.
- Eskubideen mugapena, inkompatibilitateak eta debekuak: afiliazioa alderdi edo sindikatutan.... (epaile elkarteetan bai).

## **5.4. EPAILEAREN ESTATUTUA**

- Mugaezina da (378 LOPJ).
- Inmunitatea du (398 LOPJ).
- Prerrogatibak ditu (pribilegioak) (383-385 LOPJ).
- Independentzia ekonomikoa (402 LOPJ).
- Erantzukizuna izaten ahal du:
  - Zibila: sortutako kalteengatik.
  - Penala.
  - Disziplinarioa: falta arin, larri eta oso larriak.

## **5.5. JURISDIKZIOA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide material, lurralde eta hierarkikoen araberako antolaketa.

- Materialak: zibil, administratibo, laboral, penak, militarra ...
- Lurralde: demarkazio judizialak, betiere Auzitegi Gorenean bukatuz.
- Hirarkikoak: helegiteak jartzeko aukera:

- Lehen instantzia.
- Bigarrena (apelazioa)
- Kasazioa edota rebisioa.
- Gailurrean AAEEtako auzitegi Gorenak daude, eta gero Auzitegi Gorena.

Deskonzentrazioa:

<p>- <b><u>Estatuan:</u></b> <i>Instrukzio Epaitegi Zentralak, Auzi Penaletarako Epaitegi Zentrala, Audientzia Nazionala eta Auzitegi Gorena</i>          Estatuan: Madrilan daude <i>Instrukzio Epaitegi Zentralak, Auzi Penaletarako Epaitegi Zentrala, Audientzia Nazionala eta Auzitegi Gorena</i></p> <p>- <b><u>Autonomia Erkidego bakoitzean:</u></b> <i>Justizia Auzitegi Nagusia</i></p> <p>- <b><u>Probintzia bakoitzean:</u></b> <i>Audientzia Probintziala, Gizarte gaietako buruzko Epaitegiak, Adingabeen Epaitegia, Administrazio Auzietarako Epaitegiak, eta Auzi Penaletarako Epaitegiak</i></p> <p>- <b><u>Barruti judizial bakoitzean:</u></b> <i>Lehen Instantziako Epaitegiak eta Instrukzio Epaitegiak</i></p> <p>- <b><u>Zenbait udal-barrutietan:</u></b> <i>bake Epaitegiak</i></p>
--

## 5.6. JUSTIZIAREN GOBERNUA: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA (BJKO)

Judikaturaren gobernuak Gobernuari kendu zaio (lehen justizia ministroak). Gaur egun organo bati ematen zaio BJKO (EK 122.2. art)

Bere funtzioak Konstituzioan jasotzen dira: izendapenak, maila igoerak, inspektzioak eta disziplina-erregimena.

Osaketa: 20 kide + 1 presidentea

- 12 kide epaile eta magistratuen artean. 6 eta 6 kongresu eta senatu. 3/5 eko gehiengoa.
- 8 kide abokatu eta jurista, izen handikoak, gutxienez 15 urteko jardunarekin. 4 kongresu eta 4 senatu. 3/5eko gehiengoa.
- Presidentea: 20 kideek hautatzen dute, 2/3 eko gehiengoaz. Auzi Gorenaren burua da ere.

GGNNetako gantzerak hautatuta, 3/5 erako gehiengoarekin. Bokal izateko eskakizunak:	KONGRESUAK proposatuta	SENATUAK proposatuta
12 epaile edo magistratu	6	6
8 abokatu edo legegari (15 urtetako esperientziadunak)	4	4

## 5.7. BOTERE JUDIZIALAREN BATASUNA ETA AUTONOMIEN ESTATUAREN GARAPENA

Esan da botere judiziala unitarioa eta bakarra dela. Edonola ere, autonomien estatuak isla bat badu berarengan:

### Plano organizatiboan

Auzitegi Gorenak Erkidego Autonomikoetan. Baina ez da egitura autonomiko bat (ez dago autonomi estatutuan). LOPJn arautzen dira.

### Plano funtzionalean

- Hizkuntza koofizialak ezagutu beharra (ala ez) edota nahi dugun hizkuntza erabili izatean (231 LOPJ), ezarritakoaren arabera.
- Ez ohiko errekurtsioak TSJren aurrean (casación autonómica).

### Eskuduntzen planoan

- Hala ere, erkidegoek eskuduntza exekutiboak eta kudeaketazkoak, pertsonal ez judizialaren gainean eta bitarteko materialen gainean (eraikinak, teknologia...)
- Justiziaren administrazioa estatuaren eskuduntza da (149.1.5 CE)



## 5.8. MINISTERIO FISKALA

- Estatuaren izenean salaketa ofiziala egiten du.
- Batasun printzipioa

### EK 124. Art

Justiziaren ekinbidearen promozioa, legalitatearen defentsa eta interes publikoaren izenean, zeina legeak babesten baituen. Tribunalen independentziaren defentsa, hauetan interes soziala bete dadin.

#### Funtzionamendu printzipioak:

- Batasuna eta hierarkia.
- Gailurrean Estatuko Fiskal Orokorra, erregeak izendatzen duena Gobernuaren proposamenaz.

#### Egun fiskaltza bereziak daude:

- Ustelkeriaren aurka.
- Antolatutako delinkuentziaren aurka.
- Drogaren aurka.

## 6. KONSTITUZIO AUZITEGIA

### 6.1. SARRERA

- Gerra-artean hasi zen Konstituzioaren defentsa indartzen, bilakaera luze baten ondorioz.
- Auzitegi konstituzionalaren sorrera (Hans Kelsen).
- Ordura arte dokumentu politikoak ziren konstituzioak. Orduan benetako arau bilakatu ziren.

### 6.2. AUZITEGI KONSTITUZIONALA

Benetako organo jurisdikzionala da. Konstituzioaren interprete gorena da.

Konstituzioaren IX. Tituluan arauturik dator (EK 159-165).

#### Egituraketa

- Pleno bat.
- Bi sala (sei epaile). Babes helegiteak konpontzen dituzte.
- Sekzioak (hiru magistratu): onarpenak ala ez.

#### Osaketa

- 12 kide (4 kongresu, 4 senatu, 2 gobernu eta 2 Botere Judizialaren Kontseilu Gorena BJKG).
- 3/5eko gehiengoa.
- Lehendakaria: haiek beraiek hautatua, gehiengo absolutuz, Kalitatezko botoa du.
- Betekizunak: izen handiko juristak, izan epaile, fiskal, uni irakasle, funtzionari ala abokatu) 15 urteko esperientziarekin.
- 3 urteko bere haren bat berritzen da. Beraz, 9 urtean behin osoki berriturik.
- Inkompatibilitateak: ezin dute bestelako aktibitate profesional edo merkantilik egin.

#### Eskuduntzak

- Konstituzio kontrakotasun helegiteak (recurso de inconstitucionalidad).
- Konstituzio kontrakotasun galdera (cuestión de inconstitucionalidad).

- Babes helegitea (recurso de amparo). Auzitegia kolapsatu duena. Orain onarpenak askoz zorrotzagoak. 2007an 11341 kasutik 10888 ez onartuak.
- Eskuduntza gatazka: E-AAEE edo hauen artekoak.
- Atribuzio gatazkak organo konstituzionalen artean.
- Nazioarteko itunen kontrol prebentiboa.
- Tokiko autonomiaren defentsan udalerri zein probintzietan AAEEen edota Earen legeen aurka jarritakoak.
- Eskuduntza gatazka: E-AAEE edo hauen artekoak.
- Atribuzio gatazkak organo konstituzionalen artean-
- Nazioarteko itunen kontrol prebentiboa.
- Tokiko autonomiaren defentsan udalerri zein probintzietan AAEEen edota Earen legeen aurka jarritakoak.

### **6.3. LEGEEN KONSTITUZIONALITASUN KONTROLA**

#### **1. Orokorrean**

- Konstituzionaltasun kontrola izaera judiziala duen organo batek egiten du.
- Helburua: konstituzioaren nagusitasunarekiko errespetua bermatzea.
- 2 eredu nagusi daude:
  - Difusoa.
    - AEBetako sistema (difusoa)
      - 1787ko Konstituzioak ez zuen ezer esaten gaiari buruz, baina eztabaida konstituzionalean, legeak konstituzionalki kontrolatzeko beharra azpimarratu zen.
      - Marbury Vs Madison sententzia. Lege batek konstituzioaren aurka egiten badu, inaplikatu egingo da.
      - Kontrol difusoa:
        - Edozein epailek egiten du.
        - Jurisprudenzia sortzen du.
    - Konzentratua.
      - Adibidez, legeen kontrola Europan (XX. Mendeko sistema kontzentratua): Konstituzio Auzitegia.

### ***Eredu difusoa***

Jurisdikzio arrunteko epaile eta auzitegiek egiten dute. Edozein epailek egiten du; kontrola kasu zehatz baten bidez egiten da; epaileak ez du legea ezeztatzen, inaplikatzen baizik. Eragina bi aldeetarako soilik. Eragina: *ex tunc*, kausaren hasieratik

Aurrekaria: Marbury vs Madison

### ***Eredu kontzentratua***

Organo berezi batek egiten du, ez da kasu zehatzean oinarritzen, legea indargabetu dezake. Eragina *erga omnes* eta *ex nunc*. Soilik norbaitek eskatuta egiten du lan.

Diferentziak murriztuz doaz. Gure kasuan, hurrengo inguruan:

- Autonomi estatutuak eta Loak.
- Lege mailako arauak (estatutua eta EEAA).
- Nazioarteko tratatuak.
- Ganberen erregelamenduak (estatua eta EEAA).

## **2. Konstituzio kontraketatasun helegitea (Recurso de inconstitucionalidad)**

EK 161.1.a

*Lege eta lege bezala erabakitako edozer Konstituzioaren kontra dagoela erabakitzeko. Lege bezala erabakitako arau bat Konstituzioaren kontra dagoela esan ondoren eta Jurisprudentiak horrela ulertu, baina emandako epaia edo epiek ez dute epaitutakoaren balioa galduko.*

EK 162.1.a

*Konstituzioaren aurkako salakuntza egiteko, Gobernu Lehendakaria, Herriaren defendatzailea, 50 diputatu, 50 senatore, Erkidego Autonomoen Erakunde eragile kolegiatua eta behar denean haien Biltzarrak*

### ***Zilegitasuna dute (EK 162.1.a)***

- Arartekoa eta Gobernu Presidentea.



- 50 diputatu edo senatariak.
- AAEEtako gobernu edo parlamentuek:
  - Beren autonomiari eragiten badie.
  - Ezin dituzte aurkako beste erkidegoen legeak.

### **Prozedura**

Normalean ez du eragin suspentsiborik, salbu Estatua AAEEen aurka. Suspentsioa automatikoa da eta 5 hilabeteko epean suspentsioa berretsi edo kendu behar da.

### **3. Konstituzio kontrakotasun galdera**

EK 163. Art: Cuestión de inconstitucionalidad

*Prozesu batean Auzitegi erakunde batek lege bezala emandako araua Auzi batetan erabilgarri dela erabaki dezake, eta lege hori Konstituzioaren aurka dagoela uste badu, orduan legeak jartzen dituen baldintza, era eta ondorioa jarraikiz, Konstituzio Auzitegira eramana izango da eta inolaz ere ez da izango etenaldi bat sortzekoa.*

- Epailak planteatzen du, beti ere kasua konpontzeko funtsezkoa bada.
- Hiru betekizun:
  - Lege mailako araua.
  - Funtsezko kasurako.
  - Konstituzio kontrakoa izan ahal izatea.
- Kasua suspenditu egiten da AKk epaia eman arte.

Konstituzionaltasun kontrola	Marko Normatiboa EK	LOTIC
Recurso de inconstitucionalidad/ Konstituzio kontrakotasun helegitea	EK 161.1.a + 162.1.a	Art. 31-34 eta Disp. Ad. 5
Questión de inconstitucionalidad/ Konstituzio kontrakotasun galdera	EK 163	art. 35-37 eta Disp Ad. 5

## 6.4. OINARRIZKO ESKUBIDEEN BABESA: BABES HELEGITEA (Recurso de amparo)

EK 53.2: 14-29 artikulua eta 30 (kontzientzia eragozpenei dagokionez).

Helegite autonomo eta independentea da, ohiz kanpoko.

- Soilik egin daiteke aurreko bide judicial osoa behin agortuta. Helegite guztiak agortuta. Sine qua non baldintza da.
- Ez du aurkatzen diren epaien irmotasuna suspenditzen.

### Objektua

- Interes legitimoa duen pertsona fisiko eta juridiko oro; arartekoa; Ministerio fiskala.
- 14-29 + 30 (kontzientzia eragozpena)
- Gobernua, gobernu autonomikoak edo beraien funtzionarien erabaki edo ekintzak.
- Gorteak, legegile autonomikoak... hauen erabaki eta ekintzen aurka.
- Organo judicial baten ekintza edo omisioa.

### Prozedura

Lehen salek, orain sekzioek. Demostratu behar da: "konstituzioarekiko garrantzi berezia".

Oinarrizko eskubide eta askatasunak	Marko normatiboa	Babestutako eskubideak
Babes-helegitea errekurtsua	EK 53.2, 161.1.b. eta 162.1.b	EK 14-29 + 30.2

EK 53.2 art

*Herritar guztiak auzitegi arruntetan eskatu ahal dute 14. artikuluan eta II. kapituluko 1. atalean aitortutako askatasun eta eskubideen babesa; horretarako, lehentasun- eta sumariotasunprintzipioetan*

*oinarritutako prozedura erabiliko da, eta, hala denean, babes-  
errekurtsoa ere jar daiteke Konstituzio Auzitegian. Azken errekurtso  
hori aplika dakiok, halaber, 30. artikuluan aitorturiko kontzientzia-  
objekzioari ere.*

Ek 14-29 + 30